



Sheila Carnero junto a un fragmento de la portada de su libro. E.C

«Lo que más me ha costado es dar profundidad a los personajes»

Sheila Carnero Autora de 'Bajo esquirlas de hielo'

La ermuarra Sheila Carnero publica ahora su primera novela de aventura y fantasía, 'Bajo esquirlas de hielo'

AINHOA LASUEN

ERMUA. 'Bajo esquirlas de hielo' (Roomie Ediciones) es la prime-

ra novela de la ermuarra, de 24 años, Sheila Carnero. Se trata de una novela de fantasía juvenil, con mucha miga. Esta joven, licenciada en periodismo y escritura creativa, que en la actualidad realiza sus prácticas en Madrid, le sacó provecho al confinamiento, durante el cual escribió su historia. El libro se puede ad-

quirir en la página web de la editorial, tanto en formato físico como en digital.

-¿Desde cuándo escribe?

-Empecé a escribir de adolescente fantasía juvenil y me he mantenido en el género.

-¿Cuál es el contenido de la obra?

-Los protagonistas son dos jóvenes periodistas. La chica se llama Ríaza. Tiene un trabajo estable de periodista, pero quiere hacer más, algo que trascienda de su trabajo diario. Por otro lado, el protagonista masculino, que es un chico joven anclado en el puesto de eterno becario, está esperando hacer algo importante para ascender de nivel.

-¿Y qué ocurre?

-Es una novela de fantasía y aventura. Hace 50 años un pueblo quedó sepultado bajo una capa de nieve. El pueblo y la gente desapareció y a partir de ahí cada persona que se adentra en el pueblo desaparece. Ellos van a investigar para cubrir la noticia del aniversario de la nevada.

-Ya ha escrito otras novelas cortas. ¿Cómo se animó a publicar 'Bajo esquirlas de hielo'?

-Había enviado a otras editoriales alguna novela corta, pero en este caso fue curioso. La editorial cada año publica una antología y envié un relato corto. Ellos eligen ocho de los relatos que se envían. El mío no lo cogieron para la antología, pero la editora me dijo que le había gustado mucho el mundo de fantasía que había creado y que si ampliaba la historia en una novela le podía interesar.

-Entonces, se puso manos a la obra...

-Sí. Me animó mucho. Estaba la base de la historia, pero quedaba mucho para convertir ese relato de más de 15.000 palabras en una novela de más de 100.000.

-¿Cuántas páginas tiene la novela?

-Está sobre las 450.

-¿Cuánto tiempo? y ¿qué es lo que más le ha costado

-Menos del tiempo que pensaba:

«Escribir la novela fue una buena forma de invertir el tiempo en algo, para que la cuarentena se hiciera más amena»

tres meses y medio. Empecé en la cuarentena. Era una forma de invertir el tiempo en algo y que el tiempo que pasaba en casa se hiciera más ameno. Además, la editorial me lo ha puesto fácil. Las correcciones han sido muy fáciles y la trama les gustó y no hubo que cambiar nada.

-Es importante acertar con la editorial.

-Al final, siendo una escritora novel, adentrarte en este mundo es difícil y que haya editoriales que se arriesguen está muy bien.

-¿Alguien más ha leído la obra?

-Tuve un par de 'lectoras Beta'. Un par de amigas que también escriben y me ayudaron a pulirla antes de enviarla. Es importante que las 'lectoras Beta' además de amigas sean sinceras y a ellas les gustó mucho, pero antes de enviarla a la editorial, me ayudaron a pulir alguna cosa.

-¿Qué es lo que más le costó?

-Creo que... dar profundidad a los personajes. La historia no me pareció difícil ampliarla, porque lo que escribí para el relato daba para mucho más, pero perfilar unos personajes, en un relato y en una novela, es muy diferente. Hay que marcar una evolución. Marcar cómo eran y cómo acababan siendo es lo más difícil.

Para cualquier edad

-¿Es solo para jóvenes?

-Se vende como literatura juvenil porque los protagonistas son jóvenes, pero creo que no es únicamente para público juvenil. Se tratan muchos temas: diversidad, precariedad laboral, responsabilidad social y periodística, que se pueden extrapolar a la situación actual y pueden ser interesantes para cualquiera.

Berbalagun anima a la población ermuarra a inscribirse en su actividad

A. LASUEN

ERMUA. La iniciativa de fomento del uso del euskera en Ermua y Mallabia, Berbalagun, hace un llamamiento a la población del municipio para inscribirse en la actividad.

Se trata de una iniciativa que ayuda a reunir a personas que desean hablar en euskera, con una periodicidad de al menos una vez a la semana. También se organizan actividades.

Si bien el actual curso de Berbalagun se puso en marcha en el mes de octubre, la organización recuerda que a pesar de la pandemia se mantiene activo, cumpliendo las recomendaciones de las autoridades sanitarias y con estrictos protocolos de seguridad en los grupos presenciales para la práctica lingüística.

Se organizan grupos reducidos de participantes, en espacios dotados de materiales para la asepsia y para procurar la seguridad, con el cumplimiento estricto y responsable de las medidas establecidas.

Por otra parte, esta iniciativa cuenta con la posibilidad de realizar los encuentros de forma telemática y 'online' aprovechando las oportunidades que ofrece la tecnología y las telecomunicaciones.

Para inscribirse o informarse con más detalle las personas interesadas pueden escribir un mensaje de correo electrónico a la dirección 'ermua_berba@aek.eus' o llamar al número de teléfono 663070492.

TELÉFONOS DE INTERÉS

URGENCIAS	
SOS DEIAK	112
DYA	943 464 622
HOSPITALES	
Hospital Mendaro	943 032 800
Ambulatorio de Eibar	943 032 500
Ambulatorio de Eibar (Torrekua)	943 032 650
Ambulatorio de Ermua	943 032 630
POLICÍA MUNICIPAL	
Eibar	943 708 424
Ermua	943 176 300
ERTZAINTZA	
Eibar	943 531 700
BOMBEROS Toda la provincia	
	112
TRANSPORTES	
Euskotren	902 543 210
Pesa Eibar	902 101 210
Bizkaibus	902 222 265
TAXIS	
Eibar	943 203 071 y 943 201 325
Ermua	943 170 396
AYUNTAMIENTOS	
Eibar (Centralita)	943 708 400
Eibar (Oficina de información a la Ciudadanía. Pegora)	010
Ermua	943 176 322

* EL CORREO no se hace responsable de cambios de última hora

CARTELERIA DE CINE

EIBAR

COLISEO Merkatu Kalea, 2	
El pequeño vampiro	16.00
El profesor de persa	18.30
Manual de la buena esposa	16.00 19.00
Vacaciones contigo... y tu mujer	16.00 19.00

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA Iparragirre s/n	
El pequeño vampiro	17.00
Salvaje	19.00

COMUNICACIONES

AUTOBUSES

EIBAR-SAN SEBASTIÁN

Laborables: 6.10*, 6.40*, 7.10*, 7.40, 8.10, 8.45*, 9.15*, de 10.10 a 21.10 cada hora, 13.05*, 18.10*, 19.10*.	
Sábados: 6.40*, 7.10*, 8.10, 8.45*, 9.15*, de 10.10 a 17.10 cada hora, 13.15*, 15.10*, 16.10*, 18.10*, 19.10*, 20.10*, 21.30, 23.10.	
Festivos: 8.10, 10.10*, 12.10, 13.10, 15.10*, 17.10, 18.10, 19.10* y 21.45*.	
*Salida desde Ermua diez minutos antes	

SAN SEBASTIÁN-EIBAR

Laborables: 6.50, 7.20*, 7.50*, de 8.20 a 14.20

cada hora, 11.20*, 14.30*, 14.50*, 15.20*, 16.20*, 17.20, de 18.20* a 22.20* cada hora.
Sábados: 6.50, 7.20*, 7.50*, de 8.20 a 21.20* cada hora, 11.20*, 14.20*, 16.20*, 17.20*, 18.20*, 19.20*, 22.35* y 00.20.
Domingos y festivos: de 9.20*, 11.20*, 13.20, 14.20*, 16.20*, de 18.20* a 20.20* cada hora, y 22.20*.
*Llegada a Ermua

EIBAR-BILBAO (Autopista)

De lunes a sábado: Desde las 6.40 hasta las 20.40 cada hora. Domingos y festivos: Desde las 7.40 hasta las 21.40 cada hora.

BILBAO-EIBAR (Autopista)

Laborables: De 6.40 a 21.40 cada media hora. Sábados-festivos: 7.40 a 21.40 cada media hora.
--

EIBAR-VITORIA

Laborables: 6.25, 6.40, 6.55 y de 7.30 a 21.30 cada hora.
Festivos: De 6.30 a 23.30 cada hora.

VITORIA-EIBAR

Laborables: 6.15, 7.00, 7.15, 7.45 y de 8.15 22.15 cada hora.
Festivos: De 6.15 a 22.15 cada hora

EIBAR-PAMPLONA

Laborables y festivos: 8.30

PAMPLONA-EIBAR

Laborables y festivos: 11.00.

EIBAR-ARRATE

Laborables: 15.00.
Sábados: 14.00
Festivos: 9.00, 10.00, 11.00, 12.00 y 13.00.

ARRATE-EIBAR

Laborables: 15.30.
Sábados: 14.30
Festivos: 9.30, 10.30, 11.30, 12.30 y 13.30.

EIBAR-ELGETA

Laborables: 6.30, 8.30, 11.00, 13.30, 15.30, 16.30, 18.30 y 20.30
Festivos: 8.30, 11.30, 13.30, 15.30 y 20.30.

ELGETA-EIBAR

Laborables: 6.50, 8.50, 11.20, 13.50, 15.50, 16.50, 18.50 y 20.50
Festivos: 8.50, 11.50, 13.50, 15.50 y 20.50.

EIBAR-HOSPITAL MENDARO

Lunes a viernes: 6.20, 7.05 (de 7.05 a 22.35 cada media hora).
Sábados: De 7.00 a 21.00 cada hora.
Domingos: de 8.00 a 21.00 cada hora.

HOSPITAL MENDARO-EIBAR

Laborables: De 6.45 a 21.15 cada media hora.
Sábados y festivos: De 7.45 a 20.45 cada hora.

TRENES

BILBAO-EIBAR

Laborables: 5.57. Diario: (De 6.57 a 20.57 cada hora), 9.34 y 20.34.
Sábado noche: 23.50, 1.50, 3.50 y 5.50.

EIBAR-BILBAO

Laborables: 6.13, 7.13. Diario: (De 8.13 a 22.13 cada hora), 10.36 y 21.36. Noches: 2.05, 4.05, 6.05 y 7.29.
--

ERMUA-BILBAO

Laborables: 6.19 y 7.19. Diario: De 8.19 a 21.19 cada hora.

SAN SEBASTIÁN-EIBAR

Laborables: 5.47, 6.47. Diario: De 7.47 a 20.47, cada hora, 9.20 y 21.20.

EIBAR-SAN SEBASTIÁN

Laborables: 6.13 y 7.13. Diario: De 8.13 a 22.13 cada hora, 10.35 y 21.35.
--

FARMACIAS

EIBAR

De 9.00 a 22.00: Sánchez (Julián Etxeberria, 7).
--

ERMUA

De 9.00 a 22.00: Ugarte (Goinkalea, s/n).

EIBAR-ERMUA

Noche. De 22.00 a 9.00: Izipuzua (Ibarkurutze Kalea, 7. Eibar).

berria

Igandea

HEMEROTEKA
ERMUKO LIBURUTEGIA



Luiziaren lohietan

Urtebete egingo du otsailaren 6an Zaldibarko hondamendia gertatu zela, baina galdera asko daude oraindik erantzunen zain

2



Zinema aretoak. Garai iluna bizi dute Euskal Herriko aretoetan; kezka dute urteari zutik eutsiko dioten, laguntzarik gabe **Iritzia.** Ximun Fuchs



33

Bioetika legea

Ernalketa lagundua defendatu dute feministek katolikoen aurrean, Baionan

17

Enplegua

Protesta jendetsua egin dute Gasteizen, lan duinaren alde, 50 kolektibok deituta

21

Korsika

Manifestazioa egin dute Alessandri eta Ferrandi presoen eskubideen alde

22

Empar Pineda

«Zahar etxeak beldurgarriak dira gay eta lesbianentzat»

Elkarrizketa • 46

HONDAMENDI BATEN ONDORIOAK

Nahi izatera, eragotz zitekeen Verterren zabortegiko luizia, Euskal Herrian azken urteotan gertatutako hondamendi ekologiko handienetakoa. 2011n ireki zutenetik, aurreikusi baino azkarrago betetzen ari ziren hondakindegia. Jaurlaritzak bazekien. Amildu, eta bi langile lurperatu zituen. Ezkutatzan zena azaleratu zuen horrek, eta hainbat ondorio ekarri zituen.

Igor Susaeta

Martxan jarri zuten arte, bederatzirek urte pasatu zituzten tramitazioak egiten, baina Verter Recycling 2002 SM enpresak Zaldibarko Eitzaga auzoan (Bizkaia) irekitako zabortegia azkar hasi zen irabaziak ematen. 2011ko maiatzaren ekin zion hondakinak biltzeari, eta jabeen irabazi garbiak 0,7 milioi euro izan ziren 2012an. Etekinak 1,4 milioi euroraino handitu ziren 2014an, 2015ean eta 2016an, eta ia 1,8 milioi iritsi ziren 2017an. 2018ko eta 2019ko datuak ez dira publikatu.

Baina oro ez da urte. Urtez urte gero eta zabor gehiago hartuz handitu zituen irabaziak Verterrek. 2012an, 185.000 tona; 2017an, 380.000; eta bai 2018an bai 2019an, 500.000. 2,8 milioi tona hondakin zituen 2019an; hau da, instalazioaren betetze maila %61 zen, eta, erritmo horretan, aurreikusita zegoen 2022rako beteta egongo zela. Eusko Jaurlaritzak ia hasieratik zekien betetze erritmoaren aurreikuspenak gaitzitzen ari zirela zabortegian.

Ez zion trabarik jarri, ordea. Aurrera. Administrazioak bazuen, gainera, zabortegiko jardueraren bestelako irregularitasunen berri. Hau da, eragotz zitekeela iazko otsailaren 6an gertatutako luizia, Euskal Herrian azken urteetako hondamendi ekologiko handienetakoa bat izan-

dakoa. 500.000 tona hondakin amildu ziren; hondakindegia %20 eroritzen, alegia. Bi langile betiko lurperatu zituen, eta azalean geratu ziren sektorean Zuloa deitzen zioten zabortegiko praktika irregularrak. Ezbeharrak hainbat ondorio eragin ditu. Jarraian nagusiak.

BEHARGINEN BILAKETA

Ia-ia urtebete pasatu da Zaldibarko zabortegia amilduzenetik, baina erreskate taldeek ez dute oraindik topatu hondamendian desagertutako bi beharginetako bat, Joaquín Beltran. Hilaren 21etik B4-s gisa identifikatutako eremuan ari dira Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko teknikariak hura bilatzeko lanetan -B4 eremuaren inguruan agertu zen haren autoa, iazko otsailean-, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuak joan den aste-

lehenean jakinarazi zuenez, kazetarien galderei erantzunez, Eusko Jaurlaritzaren Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Planaren zirriborroa aurkezteko ekitaldian. Aurreikusi zuen lanak bukatuta egongo zirela urtarri amaierarako. Jaurlaritzaren arabera, eremu hori ez zegoen bilaketarako lehentasunezkoen artean, eta, ez baldin badute topatzen, teknikariak B1b eta B1c eremuetara joko dute; hau da, instalazioan oraindik arakatu gabe gelditzen diren bietara. Horiek ere ez ziren lehentasunezkoak. Beltranen inguruko iturriek BERRIARI esan diote gobernuak espero duela otsailaren 15aren bueltan hastea, berriro, bi eremu horietan bila. Izan ere, eremu batera sartzen diren aldiro prozedura bati jarraitzen diote teknikariak: pilatutako hondakinak kentzen dituzte, zabortegian egindako biltegietara eramaten dituzte, eta gero, luizirik ez izateko eta bilaketa lanetan hasi ahal izateko, eremuen segurtasuna bermatzen dute.

Denboran atzera eginez gero, aintzat hartu behar da Jaurlaritzak iazko azaroaren 20an bukatutzat eman zituela Beltran azkenekoz ikusi zuten tokian -B1a eremuan- egin beharreko bilaketa lanak. Lan horiek aurkezteko, agerraldi bat egin zuten Josu Erkoreka Jaurlaritzako Segurtasun sailburu eta lehen lehendakariordeak eta Tapiak urriaren 9an, zabortegia- ren azpian, eta orduan adierazi zuten «lehentasunezko» bi eremuetako batean

Beltran azken aldiz ikusi zuten tokian egin beharreko bilaketa lanak azaroaren 20an amaitu zituzten. B1-b eta B1-c eremuetan bilatzea falta zaie teknikariei. Bi eremu horiek ez ziren lehentasunezkoak.





Amilduta. Zabortegiko luizian 500.000 tona zabor erori ziren guztira; hau da, instalazioaren %20. JON URBE / FOKU

aurkitzen ez baldin bazuten identifikatuta zeuzkatela bilaketa lanetarako beste eremu batzuk. Nolanahi ere, Erkorekak azpimarratu zuen «hipotesi hori», B1b eta B1c eremuetara jo behar izatea, ez zutela planteatzen. Azkenean, hamabi hilabete geroago, eremu horietan ahalegindu beharko dute Beltran topatzen.

Bilaketa lanek hasiera-hasieratik eman zuten zeresana. Lur jausia gertatu zen, eta Beltran eta Alberto Sololuze, desagertutako beste behargina, hondakinen azpian harrapatuta gelditu ziren. Nahasiak izan ziren otsailaren 6ko 16:00 aldera ezbeharrak gertatu eta ondorengo orduak eta egunak. Berehala hasi zituzten erreskate lanak, baina Osalaneko teknikari batek lanok eteteko agindu zuen biharamunek 01:00 inguru zirela, zabortegiko langile batek jakinarazi baitzion amianto ere biltzen zutela han —material arriskutsu hori ez zuten behar bezala bereizten eta sailkatzen—. Eguerdian berriro ekin zieten lanei, amiantoarekin lan egiten espezializatutako enpresa baten babesarekin. Otsailaren 7ko gauean, sute bat piztu zen zabortegian, eta, gainera, instalazioko lurrak ezegonkor zeuden. Horren ondorioz, lehen egunetan ezin izan zieten segidarik eman lanei. Beltranen eta Sololuzeren senideak kexu agertu ziren horregatik.

Sutearengatik, dioxina eta furano maila handiak atzeman zituzten instalazioaren inguruko herrietan; beraz, hori itzali arte, agintariek herriarrei aholkatu zieten etxeko leihoak ahalik eta gutxien irekitzeko. Egoera horrek bizpahiru aste iraun zuen.

Hurrengo urte erdian berritasun bakarra egon zen bilaketa lanei zegokienez: apirilaren 5ean, Sololuzeren autoa topatu zuen Ertzaintzak hondakinen artean. Baina behargina ez zegoen autoaren barruan. Sololuzek zabortegiko baskulan lan egiten zuen, B1 gunean, eta, instalazioko langileen esanetan, han ikusi zuten azkenean.

Eta bai, baskularen inguruan, azpiari hain zuzen, 23 bat metro beheara eginda, 250.000 metro kubiko zabor mugituta, gorpuzki batzuk topatu zituztela jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritzak abuztuaren 16an. Sei hilabete pasatu ondoren aurkitu zuten lehen giza arrastoa: berna hezur bat oihalez inguratua. Hori aintzat hartuta, hurrengo ordue-

Bi auzi ari da ikertzen Durangoko 1. Instrukzio Epaitegia: batetik, ea langileen eta pertsonen kontrako delituri egin ote duten; bestetik, ea ingurumenaren aurkako delituri egin ote den.

tan bilaketa lanak moteldu zituen Jaurlaritzak, hondakinak «metro metro» aztertzeko asmoarekin. Gorpuzki gehiago eta objektu pertsonalak ere topatu zituzten: argazki kamera bat, erloju baten uhala, eguzkitako betaurrekoak eta giltzarra bat.

Gorpuzkiak laborategira eramane zituzten, eta DNA proben emaitzek espero zena baieztatu zuten hiru egun geroago, abuztuaren 19an: Sololuzerenak ziren topatutako giza arrastoak. Bilaketa lanetan aritutako guztiei «esker ona» adierazi zieten hildako beharginaren senideek. BERRIARI esan zioten «sekulako arindua» hartu zutela, «esperantzaz apal» zeudenean heldu baitzen albiste. Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariarekin bildu ziren aurreko egunean. Beltranen senideek, aldiz, uko egin zioten bileran parte hartzeari, argudiatuta informazioa nahi zutela, «ez argazki bat». Aurreko hilabeteetan, bi familiak hainbatetan salatu zuten babesik gabe sentitu zirela, bilaketa lanen nahikoa informaziorik ez zutelako eduki. Institutzioei «utzikeria» egotzi zieten. Verterrek, berriz, ohar baten bidez, azaldu zuen «lasaigarria» izan zela gorpuzkiak topatzea.

«Esan genuen biak topatu arte ez geniola lan egiteari utziko», nabarmendu zuen orduan Elena Morenok, Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordea zenak. Ia sei

Iturri judizialen arabera, «oso-oso motel» doa prozesua, eta lekuko nagusiak ere ez dituzte deitu deklaratzera. Verterren jabeak inputatuta daude, zuhurtziagabekeria larriz eragindako giza hilketa leporatuta.

hilabete igaro dira Sololuzeren gorpuzkiak topatu zituztenetik, urtebete luizia gertatu zenetik, baina Beltranen arrastorik ez da agertu.

AUZI JUDIZIALA

Durangoko epaitegiek (Bizkaia) otsailaren erdialdean ekin zioten zer gertatu zen ikertzeari. 1. Instrukzio Epaitegia hasi zen ikertzen ea langileen eta pertsonen kontrako delituri egin ote duten, eta 2. Instrukzio Epaitegia ingurumenaren aurkako delituri egon ote den. Joan den abuztu amaieran bi auziak 1. Epaitegiko epailearen esku uztea ebatzi zuen Durangoko epaile dekanok, baina ez dituzte prozedurak bateratu; alegia, bi instrukzio egiten ari dira. Iturri judizialek BERRIARI adierazi diotenez, «oso-oso motel» doa instrukzioak, eta lekuko nagusiak ere ez dituzte deitu deklaratzera. Hori izan beharko litzateke hurrengo pausoa, baina ez dago eperik. «Ideiarik ere ez. Gainera, diligentsia asko daude egiteke». Jose Ignacio Barinaga Verterren jabe eta sortzaileari, Arrate Bilbao Barinaga kudeatzaileari eta Juan Ignacio Etxebarria azpiegiturako ingeniariari zuhurtziagabekeria larriz eragindako giza hilketa inputatu zien Sofia Maria Sanchez Ortega 1. Epaitegiko epaileak, joan den uztailan.

Hain zuzen, uztailaren 21ean atxilotu zituzten. Ez deklaratzeko eskubidea zuten, eta horri heldu zioten 23an Durangon egindako auzi saioan. Gero, aske utzi zituen epaileak, kautela neurriak ezarrita: agindu zien hilean behin epaitegira sinatzera joatea, eta pasaporteak kendu zizkien. Iturri judikoek BERRIARI adierazi zioten giza horretako delitu bat leporatzen zaienei kautelazko beste neurri batzuk ezarri ahal zaizkiela. «Hilean behin sinatzea... Delituak arinagoak izanda ere, ohikoa da epe hori bi astezko izatea». Espainiako Zigor Kodearen arabera, zuhurtziagabekeria eragindako giza hilketatik kondenatutakoei sei hilabete eta lau urte arteko kartzela zigorra ezarri ahal zaie. Verterreko buruak ingurumenaren aurkako delituen kausan ere badaude ikerketapean.

Inputatutakoak atxilo hartzeko moduak nahasmena eta kontraesanak eragin zituen. Ertzaintzak haiek atxilotzea «proposatu» zion

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

(Aurreko orrialdetik dator)

epaileari 21ean, baina, epailearen arabera, ez zuen horretarako agindurik eman, eta azaldu zuen «soil-soilik polizia operazio batean» egin zirela atxilotetak. 21ean Segurtasun Sailak esan zuen epaile batek eman zuela agindua, baina hurrengo egunean «gaizkikulertu bat» egon zela nabarmendu zuen, eta zehaztu, hori bai, epaileak eman zuela Eibarko (Gipuzkoa) komisariara eramateko «baimena». Verterrek salatu zuen «Poliziaren erabakiz» egin zirela atxilotetak, eta jokabide hori «legearen kontrakoa» zela. BERRIAK kontsultatuko iturri judizialen ustez, instrukzio bat judizializatuta dagoenean, eta Zaldibarkoa hala dago, «beti-beti» epaile batek eman behar du atxilotetak egiteko agindua.

Kontuak kontu, inputatuta daude. Bestela, ikerketek apenas zabaldu den ezer azken urtean. Iturri judizialen arabera, «ohikoen» prozedura bakarra egotea litzateke, «ekintza batasuna baita asmoa azkenean». Gainera, zenbait bikoizketa ez lirateke sortuko; esaterako, lekuko batzuek bi aldiz deklaratu behar izatea. Iturri horiek ez dakite Sanchez Ortega epaileak zergatik ez dituen bi kausak instrukzio bakarrean bateratu. «Juridikoki hitz eginda, uste genuen hala egingo zuela».

Maialen Zabala 2. Epaitegiko epaileak, ingurumen kaltearen ikerketa zeramanak, bi auziak lehen epaitegian bateratzeko eskatu zuen martxoan. Bizkaiko Probintzia Auzitegira jo zuen, eta hark Durangoko epaile dekanoren esku utzi zuen erabakia. Dena 1. Epaitegian dago, hortaz, abuztuaz geroztik, eta, iturri judizialen esanetan, hango epailea «ez omen dago oso pozik». Baliabide gehiago eskatu ditu, baina Bizkaiko Probintzia Auzitegiak ukatu egin dio eskaera. «Irizpide batzuk daude ezarrita, eta horiek kon-tuan hartuta bidaltzen dizkizute



errefortzuak. Hasieran, epaitegi batek lan asko duenean, errefortzuak eska ditzake». Iturri horiek ez dakite errefortzu gabezia hori ote den auzibidea «oso mantso» joateko arrazoia. Hurrengo pausoa litzateke «lekuko kualifikatuenak» deklaratzera deitzea. «Gutxienez, hamar bat pertsona. Ingeniariak-eta, han zebiltzanak».

Mantsotasun horren adierazle da ingurumenaren aurka delituri egin ote den ikertzeko kausan herri akusazio gisa aurkeztutakoak onartu berri dituela 1. Instrukzio Epaitegiak, Ekologistak Martxan-ek herenegun jakinarazi zuenez. Hauek onartu dituzte herri akusazio gisa: Ekologistak Martxan bera, GuraSOS, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Aldeko Plataforma, Zaldibar, Ermua (Bizkaia), Eibar eta Elgetako (Gipuzkoa) udalak, Interbiak Bizkaia SA sozietatea, Allianz Seguros, eta luizian desagertutako bi langileetako baten senideak; Beltranenak, kasu honetan.

Eskubide Sozialen Gutunak eta Zaldibar Argitu herri plataformak elkarrekin aurkeztu zuten herri akusazioa, joan den urrian. Gutunaren iturri judizialek BERRIARI herenegun adierazi ziotenez, artean jakinarazpen ofiziala jaso gabe zeuden. «Pentsatzen dugu las-ter esango digutela».

PERITU IKERKETA

Zabortegeia zergatik amildu zen ikertzeko eskatu zien Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak «nazioarteko ospea» duten hiru adituri. Apirilaren 8an eman zuen horren berri, eta adierazi sei hilabeteko epean plazaratuko zituztela peritu ikerketaren ondorioak, zabortegeia zergatik amildu zen argitze aldera. Eduardo Alonso Perez de Agreda (Bartzelonako Unibertsitate Politeknikoko katedraduna), Cesar Sagaseta (Bide ingeniari eta Kantabriako Unibertsitateko irakasle emeritua) eta Jorge Cañizal (Bide Ingeniaritzako doktore eta Kantabriako Unibertsitateko irakaslea) dira hiru aditu horiek, eta ikerketaren gertuko iturriek duela bi aste BERRIARI adierazi ziotenez, txostenaren «atariko bertsio bat» prest dago, «adostua» izateko zain. Peritu ikerketa hori enkargatu zuela jakinarazi zien Jaurlaritzak Durangoko epaitegiei apirilean.

Orduan plazaratu zuenez, aditu horiek, teknikari batzuen laguntzarekin, martxoaren 17an ekin zioten ikerketari: Kolapsoaren aurreko informazioa, luiziaren ondorengo topografia eta hiru dimentsioko ereduak aztertzen hasi ziren, besteak beste. Horrek modua emango zien, betiere Jaurlaritzak apirilaren 8an argitaratutako informazioan oinarriturik, «on-

1 Mobilizazioak. Zaldibar Argitu herri plataformak deituta, azken urtean hamaika mobilizazio egin dituzte erantzukizunak eskatzeko.

ANDONI CANELLADA / FRU

2 Auzi judiziala. Bi instrukzio ari da egiten Durangoko 1. Instrukzio Epaitegia. Ez ditu bateratu bi kausak. ANDONI CANELLADA / FOKU

3 Biltegi berria. Zabortegeiko zakar gehienak hartuko dituen biltegia egiten ari dira hondakindegian bertan, joan den abuztutik. Argazkia aurreko astekoa da. IGOR SAN JOSE

4 Enpresa. Verter Recycling enpresaren jabeek zuzentzeko erabakia hartu dute. LUIS TEJIDO / EFE

doriozko» eredu geometriko bat ezartzeko eta «hutsegitearen arrazoiak edukitzeko». Adituak, gainera, zabortegeia zabaldu zutenetik han izandako jarduna ere baziren ikertzekoak, eta informazio guztiarekin laborategian hainbat proba egitekoak.

BILTEGIAK

Beltran eta Sololuze bilatzeko lanetan mugituta lurrak pilatzeko, Jaurlaritzak erabaki zuen martxo hasieran bi segurtasun gordeleku eraikitzea: bat zabortegeiaren goiko aldean, eta bestea behekoan. 300.000 metro kubo hondakin hartuko zituzten biltegiek; hau da, 120 igerileku olimpi- kok har dezaketen kopurua. Zal-

dibarko zakarrak han dira geldit- tzeak, eta, orduan, espazio gehiago behar da haietarako. Beraz, zabortegeiaren ondo-ondoan biltegi bat eraikitze baimena eman zuen Jaurlaritzak ekainaren amaieran. Horiek eraikitze lanak abuztuaren hasieran hasi zituzten, eta espero zuten 2022ko apiril edo ekainerako bukatuta egotea. 804.000 metro kubikoko edukiera izango du, eta Jaurlaritzaren aginduak zehaztu zuen, hitzez hitz, bertako zakarrak soilik bota ahal izango zituztela biltegi- ra.



Bi fasetan eraikitzen ari direnez, udan aurreikusten zen aurtengo maiatzerako-edo biltegi zabor- ra botatzen hasteko moduan egotea. Lehengo astelehenean, kazetariak galdetu zioten Tapiari ea lanak nola doazen, ea aurrei- kuspunak beteko diren, eta ez zuen argi erantzun.

Verterrek, berriz, zabortegei za- harra handitzea proposatu zuen. Jaurlaritzak, baina, ezetz erant- zun zion. Azkenean, amildutako zabortegeiaren ondo-ondoan ari dira eraikitzen. Hartuko duen lur gehiena hondakindegia jabea- na bada ere, desjabetu behar izan dituzte biltegia eraikitze behar zituzten lur zati batzuk.

Obrak 9,3 milioi euroko aurre- kontua du. Jaurlaritzak ordaintzen ari da, «subsidiarioki», zaborte- geiaren bueltako lanak, eta esana dauka lan guztiak amaitutakoan faktura pasatuko diola zaborte- geiaren jabeari. Uztailean adierazi

Amil- tzea argitzeko, Jaurlaritzak peritu ikerketa bat eskatu zien «nazioarteko ospea» du- ten hiru adituri, apirilean. Sei hilabeteko epean ziren ondorioak plazaratze- koak. Oraindik ez dute halakorik egin.

Zaldibarko luiziaren urteurrena



zuen 13,4 milioi euro zeramatzala gastatuta.

Instalazioaren etorkizunari dagokionez, Beltran bilatzeko lanak bukatutakoan hura zigilatzeke asmoa dauka Jaurlaritzak. «Zabortege honek bukatu ditu bere lanak», azpimarratu zuen Tapiak urrian. Ohartarazi zuen, halere, «denbora asko» beharko dela dena zigilatu eta egonkortzeko.

IKERKETAK EUROPAN

Zaldibar Argitu plataformak, Ekologistak Martxan elkarteak eta Salibante auzo elkarteak (Ermua, Bizkaia) auzia ikertzeko eskatu zuten Europako Parlamentuko Eskueren Batzordean, eta hark tramiterako onartu zuen eskaera, joan den azaroaren 24an. Horren bestez, Ingurumen eta Enplegu Batzordeak eta Europako Batzordeak auzia ikertu eta jarrera bat azaldu beharko dute. «Hasieran, ikertu behar da, eskusiboki, ea Europako zuzentzararen bat urratu duten: zabortegeien zuzentzaraua, ea kontrola nahikoa zen...», azaldu dio BERRIARI Carlos Alonso taldeko ekologistako kideak. «Europako Batzordeak informazioa eskatzen dio Espainiako Gobernuari, eta hark, gero, Eusko Jaurlaritzari», erantsi du, prozeduraren bidea zehazte aldera.

Zenbait hedabidek azaroaren 24an kaleratu zuten, Europako

Batzordeak urtarrilaren 21era arteko epea zuen azalpenak emateko. «Guri ez ziguten datarik eman. Uste dut Barrenaren gauza izan zela», adierazi du Alonsok. Izan ere, Fernando Barrena (EH Bildu) eta Sira Rego (IU) europarlamentariak eskaera babestu zuten. EH Bilduren Bruselako iturriek BERRIARI esan diotenez, auziaz galde dute, eta erantzun dieten txostena «aurreratuta» dagoela.

Europako Batasunean auziarekin loturiko beste ikerketa bat dago martxan. PPko Dolors Monserrat eta Javier Zarzalejos europarlamentariak eta Ciudadanoseko Soraya Rodriguezek otsail amaieran eginiko galderei erantzunez, Virginijus Sinkevicius Europako Batzordeko Ingurumen komisa-

Bi ikerketa egingen ari dira EBN, frogatzeko ea Verterrek urratu zuen arauen bat. Jaurlaritzaren eskariz egingen dako beste txosten baten arabera, ingurumen baimenak Europako zuzentzarauak betetzen zituen.



«Ingurumen erantzukizuneko espediente» aztertuta, Jaurlaritzak ebatzi du Verter dela eragindako «ingurumen kalteen» erantzulea. Enpresaren ustez, «beste eragile batzuk» ere «erantzule» izan litezke.

rioak adierazi zuen malatzaren 13an ikerketa bat abiatuko zutela, «kasuaren larritasuna ikusita». Eusko Jaurlaritzari ez zitzaion gustatu, eta, Bruselaren asmoen berri eduki eta berehala, nabarmendu zuen «oinarririk gabeko ondorioak» eman zituela batzordeak. Sinkeviciusen jarrera «deitoratu» zuen.

Zenbait hilabete geroago, azaroaren amaieran, Izaskun Bilbao europarlamentariak (EAJ) Twitterren adierazi zuen Sinkeviciusek jakinarazi ziola, bere galdera bati erantzunez, batzordeak abenduaren amaierarako aurkeztuko zuela ikerketa horren emaitza, eta Espainiako Gobernuari erantzun bat emango ziola. Oraingoz, inork ez du ikerketa horren emaitza publiko egin.

Hori bai, Jaurlaritzak zabortegeari emandako ingurumen baimenak Europako zuzentzarauak betetzen zituen, baita lege irizpide guztiak ere, Ricardo Energy & Environment ikuskaritza etxearen txostena aintzat hartuta. Jaurlaritzak apirilean eskatu zion ikerketa egin zezala, eta emaitza irailaren hasieran eman zion Erresuma Batuko enpresak. Eusko Legebiltzarrera eraman zuen txostena gobernuak.

INGURUMEN ESPEDIENTEA

Verter Recycling 2002 SM da Zaldibarko zabortegeiak eragindako «ingurumen kalteen» erantzulea, iazko otsailean amildutako instalazioaren kudeatzailea den neurrian. Hori ebatzi du Eusko Jaurlaritzak, «ingurumen erantzukizuneko espediente» aztertuta. Joan den urtarrilaren 20an argitaratutako ohar batean, nabarmendu zuen enpresa dela eremuko lurzoruetan eta azaleko eta lurpeko uretan egingako «kalte esanguratsuen» erantzulea. Arantxa Tapiak egun horretan bertan oroitu zuen amiantoaren zutela bat «hautsi» egin zela, material toxiko hori zabortegearen «leku guztietan» isuri zela, eta, «beraz, lur guztia kutsatuta» dagoela. Hamar eguneko epea eman zioten enpresari «ingurumen kalteak

konpontzeko» proiektua aurkeztu zezan. Tapiaren esanetan, horren «ikuskaritza bat» egingo dute, eta ondoren emango dute «azken ebazpenaren» berri, zeinak zehaztuko duen «kaltea non dagoen, norena den erantzukizuna, eta nola konponduko den».

Enpresak gaitzetsi egin du erantzukizun guztia berari «eskusiboki» egotzi izana. Urtarrilaren 22an ohar bat kaleratu zuen, eta nabarmendu «inplikaturako» beste eragile batzuk ere «erantzule» izan litezkeela. Ez zuen izenik eman, baina, besteak beste, Jaurlaritzaz ari zela ondorioztatu daiteke, kontuan hartuz gero hainbat ahotsek salatu dutela administrazioaren kontrola falta zela zabortegearen egitekoa zaintzeko garaian. «Balorazioak» egitean «zorrotasun handiagoa» izateko eta «gertakari objektiboetan» oinarritzeko eskatu dio Jaurlaritzari.

2030ERA BEGIRAKO PLANAK

4.000.000 metro kubo jasotzeko ahalmena zuten, iazko martxoan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan aktibo dauden hondakin ez-arriskutsuen hamar zabortegeiek. Arantxa Tapiak eman zuen datua, lehengo astelehenean, Eusko Jaurlaritzaren Hondakin Prebentzioarako eta Kudeaketarako Planaren zirriborroa aurkezteko agerraldian. Baina Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren arabera, 2030era bitartean 7.500.000 metro kubo jasotzeko ahalmena beharko dute, aintzat hartuta «industria ehunaren beharrak» eta sor litezkeen «ustekabeak».

Mutiloako (Gipuzkoa) eta Larrazteko (Bizkaia) hondakindegia itxi dituzte, eta Zaldibarren «gertakari bat» izan da, baina Jaurlaritzak ez du aurreikusten zabortege gehiago eraikitzea; «gehienez ere», Tapiaren esanetan, eraikita dauden bolumena areagotuko dute. Hiru modu planteatu dituzte: zabortege publikoren bat «handitzea edo hobetzea»; zabor geldoetarako zabortegeak «eraldatzea», horiek hondakin ez-arriskutsuetarako zabortege bilakatuz; eta «handitzeko gaitasuna» duen zabortege pribatuetakoren bat handitzea.

Planaren helburua da zabortegetara eramandako hondakinak %85 murriztea 2030erako, egungo datuen aldean. Asmo hori gauzatu ahal izateko, hamarkada honetan 97 milioi euro inbertitzeko da Jaurlaritza.